

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Behin betiko onarpena ematea San José de los Llanos industrialdeko 2. sektoreko konpentsazio batzarraren jarduketa oinarrietako laugarrenaren aldaketari**

Alkatetzaren 2016ko abuztuaren 30eko 404/2016 Ebazpenaren bidez, behin betiko onarpena eman zaio Iruña Okako San José de Los Llanos industrialdeko 2. sektoreko konpentsazio batzarraren jarduketa oinarrietako laugarrenaren aldaketari, zeina honela geratu baita:

4. Aurrez industria jarduera zegoenez ekarritako 2 eta 3 lurzatietan, gehienez ere hogeita bost (25) urteko epean, konpentsazio proiektuaren testu bateratu eta zuzendua jabetza erregistroan inskribatzen denetik, eta, betiere, finka horiek edo ekarritako finka horien subrogaziotik atera daitezkeenak oraingo titularren jabetzan, hau da, Billares Sam SA, José Miguel Letamenti, María Teresa Sáenz de Buruaga Oleaga eta Isaac Santos Santosenean mantentzen badira, finka horiek ekartzeari dagokion urbanizazio kostuetako partaidetza ehuneko 50 murriztuko da. Hala ere, murrizketa hori titular horiexei guztiz lotuta dagoenez, jabetza erregistroan jasota geratuko da ateratzen diren finken afektazioa dagozkien urbanizazio kostuak osorik ordaintzeko.

5. Ekarritako 2 eta 3 lurzati horiek edo ateratzen diren finkak, ezarritako epean, aurreko idatz zatian aipatutakoa ez den pertsona fisiko edo juridikoren baten jabetzara igarotzen badira, titular berriek ateratzen diren lurzatiei benetan dagozkien urbanizazio kostu guztiak ordaindu beharko dituzte, behar bezala eguneratuta kontsumo prezioen indizea aplikatuz.

Hori guztia aditzera ematen da, Hirigintzako kudeaketaren Arautegiak, abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 162.4 artikuluan xedatzen duena betez.

Langraiz Oka, 2016ko abuztuaren 31

*Alkate lehendakaria*

**JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA**